

LATXA ESNEA, KOOP. S.

Sozietatearen izena

Latxa Esnea, Koop. S.

IFK

F75057042

Izaera

Kooperatiba-sozietatea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Ardi latxarekin lan egiten duten ustiatuei lan tresnak eskaintzeko asmoz sortu zen 2011ko azaroan.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

0162 Nekazaritzari laguntzeko jarduerak.

Sozietatearen helburua

Kooperatibaren helburu nagusia bazkide diren ustiatuegietako ardi-esnea merkaturatzea da, bai eta esnea eraldatu eta lantzea eta lortutako esnekiak merkaturatzea ere. Halaber, kooperatibaren helburu izango da bazkide diren ustiatuegietako artaldeetatik lortutako beste produktu batzuk merkaturatzea edo/eta eraldatzea, adibidez arkumea edo artilea, eta jarduera nagusien aurrekari eta ondorio diren jarduerak ere bai, adibidez pentsua kontserbatu, manipulatu, garraiatu eta merkaturatzea, eta hainbat kontratazio egitea: zerbitzu teknikoak, kudeaketako zerbitzuak, zerbitzu juridikoak, aseguruak, merkaturatzearen arlokoak nahiz agronomikoa arlokoak.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Eska daitekeen kapital itzulgarria

43.000 €

Sustatzaileak

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 19 artzain dira. EAEko Administrazio Orokorrarekin batera eratu zuten kooperatiba, Neiker, S.A. Sozietate Publikoaren bitartez.

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	122.571 €
Ondare garbia	39.800 €
Negozio kopuruen zenbateko garbia	624.152 €
Batez besteko langile-kopurua	1

Sozietatearen helbidea

Nagusia 37 behea, 20213 Idiazabal (Gipuzkoa).

Webgunea

www.latxaesnea.jimdo.com